

I ERANSKINA

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak.

1.- Dirulaguntzen helburua.

Mendiko larreak Batasunaren intereseko habitatak dira, eta lehenatasunezko azpimota batzuk ere badira. Kontserbatuko badira, gainbehera etorri diren jarduera tradizionalei eutsi beharko zaie, era aktiboan kudeaturiko abeltzaintza estentsiboa behar da.

Horrenbestez, mendiko larreak zaintzeko alderdirik garrantzitsuenetako bat izan beharko zen abeltzaintza estentsiboa sustatzeko gaitasuna, aldeko kudeaketa aktiboaren bidez; bereziki, ardi-aziendari dagokionez.

Laguntzen lerro honen bidez abeltzaintza estentsiboa lagundu nahi da, halaber, artzain txabolak hutsik egon beharrean, erabilera emanda Udal-ondarea kontserbatzen eta mantentzen lagundu nahi da.

2. Araubide juridikoa.

Dirulaguntza hauek oinarri arautzaile hauek eta urtero egingo diren deialdiek arautuko dituzte, bai eta honako arau hauek ere:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak.
- 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duenak.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, Oñatiko Udalaren Dirulaguntzak Kudeatzeko Ordenantza Orokorrak.
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak; bestela, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

ANEXO I

Bases reguladoras para subvencionar los trabajos realizados en las chabolas de pastores de los Montes de Utilidad Pública de Oñati

1º Objeto de la subvención.

Los pastos montanos son hábitats de interés comunitario, con algunos subtipos prioritarios. Su conservación exigirá el mantenimiento de las actividades tradicionales que han decaído y la necesidad de una ganadería extensiva gestionada de forma activa.

Por lo tanto, la capacidad de fomento de la ganadería extensiva, mediante una gestión activa favorable, especialmente en el caso del ganado ovino, debería ser uno de los aspectos más importantes en la conservación de los pastos de montaña.

Con esta línea de ayudas se pretende favorecer la ganadería extensiva, al mismo tiempo, en vez de que las chabolas de pastor estén vacías, con su uso se pretende contribuir a la conservación y mantenimiento del patrimonio municipal.

2º Régimen jurídico.

Estas subvenciones se regirán, además de por las presentes bases reguladoras y las correspondiente convocatorias, por las siguientes:

- Ley 38/2003 de 17 de noviembre.
- Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Real Decreto 887/2006 de 21 de julio y Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Oñati.
- Restantes normas de derecho administrativo, y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

3. Onuradunak eta bete beharreko baldintzak.

2026ko martxoaren 26an Udal Osoko Bilkurak behin betiko onartu zuen Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzek eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantza (2022/07/29 GAO).

Ordenantzaren VI. tituluak artzain-txabolen erabilera eta lagapena arautzen du. Irizpide orokor bezala, Herri Onurako Mendietan dauden txabolak artzaintza jarduerari lotutako erabilerako izango dira soilik.

Laguntza hauen onuradunak izango dira Oñatiko Herri Onura Mendietan dauden artzain txabolen erabiltzaileak.

Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Erret Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Nekazaritza-ustategiak honako baldintza hauek bete behar ditu:

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Nekazaritza Ustialekuen Erregistroan inskribatuta egongo da.

2. Landare sanitate, abere identifikazio eta sanitate, abere ongizate eta ingurumenari dagokien indarrean dagoen araudia bete beharko du.

3. Araudiak ezarritako bestelako higiene eta osasun-baldintza guztiak betetzea.

*.- *Nekazaritza ustialekuaren ezaugarriak egiaztatuko dira Eskualdeko Nekazari Bulegokoaren (ENB) egiaztatgiriaren bidez.*

3ª Personas beneficiarias y requisitos a cumplir.

El 26 de marzo de 2026 el Pleno Municipal aprobó definitivamente la Ordenanza Municipal reguladora del pastoreo y uso de las chabolas de pastor en los Montes de Utilidad Pública del Ayuntamiento (BOG 29/07/2022).

El Título VI de la Ordenanza regula el uso y cesión de las chabolas de pastores. Como criterio general, las chabolas ubicadas en los Montes de Utilidad Pública serán de uso exclusivo vinculado a la actividad pastoril.

Serán beneficiarios de estas ayudas los usuarios de las chabolas de pastor ubicadas en los Montes de Utilidad Pública de Oñati.

Podrán solicitar las subvenciones las personas físicas o jurídicas que cumplan lo establecido en el artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y en los artículos 18 al 29 del Real Decreto 887/2006.

La explotación agraria debe de reunir los siguientes requisitos:

1. Estará inscrita en el Registro de Explotaciones Agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Deberá cumplir la normativa vigente en materia de sanidad vegetal, de identificación y sanidad animal, de bienestar de los animales y de medio ambiente.

3. El cumplimiento de todas las condiciones impuestas por la normativa respecto a higiene y salud

*.- *La acreditación de las características de la explotación agraria se realizará mediante certificado de la Oficina Comarcal Agraria (OCA).*

4. Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak eta dirulaguntzen bateragarritasuna.

Udalaren Herri Onurako Mendietan larreratzeko eta artzain-txabolen erabilera arautzeko udal ordenantzaren 22. artikulua arabera, txabolaren lagapena duen bitartean, artzainak mantenu arruntaren ardura izango du, mantenu arruntetatik kanpo gelditzen diren konponketak edo inbertsioak Udalaren ardura izango dira.

4 atal ezberdintzen dira:

- Jarduerari lotutako gastuak

HOMan garatzen den artzantza ustiatzearen errentagarritasuna hobetzeko inbertsioak, bereziki ekoizpen kostuak murrizteko, energia gastua murrizteko, ekoizpena handitzeko eta nekazaritza jarduerak anizteko inbertsioak. Besteak beste: jezteko eta esnea hozteko instalazioak, artzaintza instalazioetako inguruko hesiak, erabilerarako barrutiak, eusteko mahukak...)

- Txabolan kontserbazioari lotutako gastu arruntak

Erreteila egitea, fatxada margotzea, bertako instalazioen ohiko mantenuari lotutako gastuak.

- Txabolan bizigarritasun-baldintzak hobetzeari lotutako gastuak

Berokuntza sistema, ur hornidura, argindarra egokitzeak. Egongelen eraberritzeak (sukalde, komun, logela)

- Txabolan egonkortasunari lotutako gastuak

Zimenduak, karga hormak, egitura, itxiturak (leihoak eta atekak).

4ª Inversiones subvencionables y compatibilidad de las subvenciones.

Según el artículo 22 de la ordenanza municipal reguladora del pastoreo y uso de chabolas de pastores en los Montes de Utilidad Pública del Ayuntamiento, mientras el pastor o pastora tenga la cesión de la chabola, se encargará de su mantenimiento ordinario, siendo responsabilidad del Ayuntamiento las reparaciones o inversiones que queden fuera de los trabajos ordinarios de mantenimiento.

Se distinguen 4 apartados:

- Gastos asociados a la actividad

Inversiones para mejorar la rentabilidad de las explotaciones de pastoreo que se desarrolla en el HOM, en particular inversiones para reducir los costes de producción, reducir el gasto energético, aumentar la producción y diversificar las actividades agrarias. Entre otras: instalaciones de ordeño y refrigeración de la leche, cierres cercanos a las instalaciones de pastoreo, recintos de uso, mangueras de sujeción...)

- Gastos corrientes de conservación en chabola

Realización de la reteja, pintado de la fachada, gastos relacionados con el mantenimiento normal de sus instalaciones.

- Gastos relacionados con la mejora de las condiciones de habitabilidad de la chabola

Sistema de calefacción, suministro de agua, ajustes de energía eléctrica. Reformas de salas (cocina, baño, dormitorio)

- Gastos de estabilidad en chabola

Cimentaciones, muros de carga, estructura, cerramientos (ventanas y puertas).

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bera izan eta aurrekontu publikoen kargura eman daitezkeen beste dirulaguntza batzuekin.

Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, eta oinarri arau espezifikoek beste erregulazioen bat ezarri ezean, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gain finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

5. Dirulaguntzen zenbatekoa.

Lehenetsi egiten dira jarduerari lotutako inbertsio edo gastuak, txabolaren kontserbazioari lotutako gastu edo inbertsioen aurrean.

Halaber, artzaintza ogibide dutenei laguntza handiagoa ematen zaie, bertatik bizi ez direnen aurrean.

5.1.- Jarduerari lotutako gastuak

- *.- Artzaintza ogibide izanda (%85eko laguntza)
- *.- Artzaintza ogibide ez izanda (%50eko laguntza)

5.2.- Txabolan kontserbazioari lotutako gastu arruntak

- *.- Artzaintza ogibide izanda (%50eko laguntza)
- *.- Artzaintza ogibide ez izanda (%25eko laguntza)

5.3.- Txabolan bizigarritasun-baldintzak hobetzeari lotutako gastuak

- *.- Artzaintza ogibide izanda (%50eko laguntza)
- *.- Artzaintza ogibide ez izanda (%25eko laguntza)

5.4.- Txabolan egonkortasunari lotutako gastuak

- *.- Artzaintza ogibide izanda (%100eko laguntza)
- *.- Artzaintza ogibide ez izanda (%75eko laguntza)

Las subvenciones serán compatibles con otras subvenciones que puedan darse a cargo de los presupuestos públicos con ese mismo objeto.

En caso de obtener otras vías de financiación, y mientras las bases específicas no regulen lo contrario, se fija un tope del 100% del gasto como tope de subvención, esto es, no podrá existir sobre financiación a través de la subvención del Ayuntamiento.

5ª Cuantía de la subvención.

Se priorizan las inversiones o gastos asociados a la actividad frente a los gastos o inversiones asociados a la conservación de la chabola.

Asimismo, se presta una mayor ayuda a quienes tienen por oficio el pastoreo frente a quienes no viven de él.

5.1.- Gastos asociados a la actividad

- *.- Pastoreo como oficio (85% de ayuda)
- *.- Pastoreo sin profesión (50% de ayuda)

5.2.- Gastos corrientes de conservación en chabola

- *.- Pastoreo como oficio (50% de ayuda)
- *.- Pastoreo sin profesión (25% de ayuda)

5.3.- Gastos relacionados con la mejora de las condiciones de habitabilidad de la chabola

- *.- Pastoreo como oficio (50% de ayuda)
- *.- Pastoreo sin profesión (25% de ayuda)

5.4.- Gastos de estabilidad en chabola

- *.- Pastoreo como oficio (100% de ayuda)
- *.- Pastoreo sin profesión (75% de ayuda)

Nekazari batek ATP izaera du, hau da, bere ogibide nagusia nekazaritza da, baldin eta urteko errenta osoaren % 50 gutxienez bere ustiatégian egiten duen nekazaritza jardueratik lortzen badu, eta urteko lan denbora osoaren % 50 edo gehiago ustiatégiarekin lotura zuzena duten jardueretarako ematen badu, nekazaritzako lan unitateen arabera.

Azken baldintza hau betetzen den ikusteko urtean gehienez 2.700 lan ordu egin ditzakeela pertsona bakoitzak kontsideratuko da; hortaz, nekazaritza jardueratik kanpo 1.350 lanordu baino gehiago ematen dituenak ezingo du inola ere ATP izaera baldintza bete, nekazaritzako lan unitateak edozein direla ere.

Nekazaritza jardueratzat hartzen dira nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako produktuak lortzeko egin beharreko lanak, produktu horien eraldaketa, ontziraketa eta salmenta barne hartuta, baldin eta ustiatégiaren barruan egiten badira; era berean, halakotzat joko dira ustiatégia mantentzeko egin beharreko lanak.

Aspektu hori egiaztatzeko honakoa aurkeztu beharko da:

- Errenta aitorpena eskatzaileak aitortutako nekazaritza-abeltzaintza jardueri buruzko eranskina derrigorrez jaso beharko duelarik.
- Kanpoan lan egiten badu, lan kontratua, urtean zenbat ordu egiten dituen ikusteko.
- Gizarte Segurantzaren ziurtagiria: autonomoen erregimen berezian nekazaritzari lotutako epigrafe edo jarduera batean alta emanda egotearena.

Un agricultor tiene el carácter de ATP, es decir, su principal profesión es la agricultura, siempre que obtenga al menos el 50% de su renta total anual de la actividad agraria que realiza en su explotación y que dedique el 50% o más del tiempo total de trabajo anual a actividades directamente relacionadas con la explotación, según las unidades de trabajo agrario.

Para determinar el cumplimiento de este último requisito se considerará que el número máximo de horas de trabajo por persona es de 2.700 horas anuales, por lo que en ningún caso podrá cumplir el requisito de ATP quien realice más de 1.350 horas de trabajo fuera de la actividad agraria, independientemente de las unidades de trabajo agrario.

Se entiende por actividad agraria los trabajos necesarios para la obtención de productos agrarios, ganaderos o forestales, incluida su transformación, envasado y venta, siempre que se realicen dentro de la explotación, así como los trabajos necesarios para su mantenimiento.

Este extremo se acreditará mediante la presentación de:

- La declaración de la renta deberá incluir obligatoriamente el anexo relativo a las actividades agropecuarias declaradas por el solicitante.
- Si trabaja fuera, contrato de trabajo para ver el número de horas anuales que realiza.
- Certificado de la Seguridad Social de estar dado de alta en un epígrafe o actividad agraria del Régimen Especial de Autónomos.

6. Balioespen irizpideak.

Laguntza banatzerako orduan artzaintza ogibide dutenek eta bertatik bizi ez direnak ezberdintzen dira, aurrenekoei lehentasuna emanda.

1) Nekazaritza ustialekuaren ardi kopurua (gehienez 70 puntu)

$Pe = (Uh/Ue) \times 70$

Non:

Pe: eskatzailearen puntuazioa

Uh: Jasotako eskaeratik ardi kopurua handiena

Ue: Eskatzailearen ustiategiaren ardi kopurua

2) Proiektuaren komenigarritasuna eta beharra justifikatzen duten inbertsioaren onurak; esaterako, ingurumen-helburuak, azpiegiturak eta proiektuak garatzeko bitartekoak, bultzada ekonomikoa. (gehienez 20 puntu)

3) Aurkeztutako inbertsio lagungarriaren zenbatekoa. (gehienez 5 puntu)

*.- ≤ 1.000 euro: 1 puntu.

*.- $1.000 < \text{inbertsioa} \leq 6.000$ euro: 3 puntu.

*.- > 10.000 euro: 5 puntu.

4) Ustiategiaren ezaugarriak (gehienez 5 puntu)

Ustategia kalitate bereizgarri, jatorri izendapen edo ekoizpen ekologikoko ziurtagirietan jasotako ekoizpenetara zuzenduta daudenak. Hori egiaztatzeko izendapen horien froga-agiriak aurkeztu beharko dira. Puntu bat izendapen bakoitzeko. (Idiazabal, ekologikoa, beste batzuk...)

Laguntzak emango dira aurkeztutako proiektu bakoitzari puntuazio irizpideek emandako balorazioaren arabera. Hala ere, aurkeztu diren eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei kopururik handiengan

6ª Criterios de valoración.

A la hora de distribuir la ayuda se distingue entre quienes tienen por oficio el pastoreo y quienes no viven de él, dando prioridad a los primeros.

1) Número de ovejas de la Explotación Agraria (máximo 70 puntos)

$Pe = (Uh/Ue) \times 70$

Lugar:

Pe: puntuación solicitante

Uh: El mayor número de ovejas de las solicitudes recibidas

Ue: Número de ovejas de la explotación del solicitante

2) Beneficios de la inversión que justifiquen la conveniencia y necesidad del proyecto, tales como objetivos ambientales, infraestructuras y medios para el desarrollo de proyectos, impulso económico. (hasta 20 puntos)

3) Importe de la inversión subvencionable presentada. (hasta 5 puntos)

*.- 1.000 euros: 1 punto.

*.- $1.000 < \text{inversión} \leq 6.000$ euros: 3 puntos.

*.- > 10.000 euros: 5 puntos.

4) Características de la explotación (hasta 5 puntos)

Explotaciones destinadas a producciones incluidas en distintivos de calidad, denominaciones de origen o certificaciones de producción ecológica. Para acreditarlo deberá aportarse la documentación probatoria de dichos nombramientos. Un punto por cada denominación. (Idiazabal, ecológico, otros)

Las ayudas se concederán en función de la valoración otorgada a cada proyecto presentado según los criterios de puntuación. No obstante, para las solicitudes presentadas que reúnan los requisitos establecidos, podrá no

erantzuteko adina kreditu baldin badago, ez da beharrezkoa izango balorazioa egitea, ez eta proiektuen arteko lehentasun hurrenkera ezartzea ere.

Deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, eta horrek kreditua sortzea eragiten badu, kreditu hori beste onuradun bati eman dakioke, beste deialdi bat egin beharrik gabe; beste onuradun hori izango da onuradun izateko baldintzak bete arren nahikoa kreditu ez dagoelako laguntzarik gabe geratu direnen zerrendako hurrengoa, balorazio irizpideen ondorioz erabaki den hurrenkeraren arabera. Hala ere, baldintza izango da uko egitearekin askatu den kreditua nahikoa izatea ukatutako laguntzetakoren bati gutxienez erantzuteko.

Aukera hau baliatuz gero, jakinarazi egingo zaio entitate onuradunari, hamar eguneko epe luzaezina emanaz dirulaguntza proposamena onartzeko; proposamena onartzean diru laguntza emateko erabakia hartuko da, eta oinarri hauetan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da.

7. Eskaeren aurkeztea.

Interesa duten pertsonak Oñatiko Udaleko Erregistroan aurkeztu behar dituzte eskaerak. Hala ere, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) 16.4. artikuluan aipatutako beste bideak ere erabil daitezke. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztuko da.

Orobat, eskaera-eredua ere dagokion deialdian ezarriko da. Inprimaki bat bete behar da diruz lagundu nahi den jarduketa bakoitzeko.

efectuarse la valoración ni fijarse un orden de prelación entre las mismas, en caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para la atención de todas ellas en la máxima cuantía posible.

Una vez resuelta la convocatoria, si se generase crédito por renuncia por parte de las entidades que resultaron beneficiarias podrá asignarse, sin necesidad de nueva convocatoria, a la siguiente de la lista que reúna los requisitos y que no haya sido beneficiaria por falta de crédito, siguiendo el orden que haya resultado de la aplicación de los criterios de valoración establecidos, y siempre y cuando con la renuncia se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas.

Esta opción se comunicará a la entidad correspondiente, a fin de que acceda a la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días; una vez aceptada la propuesta, se dictará y notificará a la entidad el acto de concesión de la subvención.

7ª Presentación de solicitudes.

Los interesados presentarán las solicitudes en el Registro del Ayuntamiento de Oñati, sin perjuicio de cualquiera de los restantes medios señalados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. El plazo para presentar las solicitudes se establecerá en la correspondiente convocatoria.

Asimismo, el modelo de solicitud será el establecido en la correspondiente convocatoria, debiéndose cumplimentar un impreso por cada actuación para la que se solicite ayuda.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

*.- Foru Ogasuna-PFEZ kontsulta.

*.- Foru Ogasuna- Zerga betebeharretan egunean egotearen kontsulta.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikuluekin bat etorriz, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, Udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoa lortu, eskatzaileak aurkeztu beharko du.

8. Prozedura.

Prozeduraren instrukzioa Landa Garapeneko Departamentuak egingo du, ofizioz, eta aurkeztutako eskabideak egiaztatzeko eta baloratzeko behar diren jarduerak egingo ditu.

Landa Garapeneko Batzordeak, balorazio-arganoa denak, eskabideak ebaluatuko ditu eta egindako ebaluazioaren emaitza zehazten duen txostena egingo du.

Espedientea eta egindako txostena ikusita, instrukzio-arganoak ebazpen-proposamena egingo du, egoki arrazoituta, eta erakunde interesdunei jakinaraziko zaie.

De conformidad con lo establecido en el artículo 28 de la Ley 39/2015 y en el artículo 6.1 del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Oñati, salvo oposición del interesado, consultará directamente en el registro del Gobierno Vasco y a través del nodo de interoperabilidad Nisae, la siguiente información para comprobar si cumplen los requisitos para acceder a la bonificación:

*.- Consulta Hacienda Foral-IRPF.

*.- Haciendas Foral- Consulta de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

De conformidad con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos de 27 de abril de 2016, el solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos indicando los motivos de su oposición, en cuyo caso el Ayuntamiento podrá obligarle a presentar el correspondiente documento.

En el caso de que el Ayuntamiento no pueda obtener de forma telemática la documentación necesaria en el momento de recibir la solicitud, ésta deberá ser aportada por el solicitante.

8ª Procedimiento.

La instrucción del procedimiento corresponderá al Departamento de Desarrollo Rural, que llevará a cabo de oficio las actuaciones necesarias para la comprobación y valoración de las solicitudes presentadas.

La Comisión de Desarrollo Rural, como órgano de valoración, será la encargada de evaluar las solicitudes y emitir el informe en el que se concrete el resultado de la evaluación realizada.

A la vista del expediente y del informe emitido, el órgano instructor formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será notificada a las entidades interesadas.

Ondoren, organo eskudunak prozedurari amaiera ematen dion ebazpena emango du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin eta aplikatu beharreko araudiarekin bat etorrita.

9. Dirulaguntzak emateko ebazpena.

Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena, hala badagokio, organo eskudunak emango du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren arabera.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat hartuko da lege ondorio guztietarako argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Ebazpenak entitate eskatzaileak eta aurkeztutako proiektuak eta jarduerak identifikatu ditu. Dirulaguntza jasoko dutenentzat ebazpenak ezarriko du zein den diruz lagungarritzat hartutako gastua, zein ehunekotan izango den diruz lagundua, emandako laguntzaren zenbatekoa eta baita hori finantzatzeko erabiliko den kontu saila eta urtekoa ere. Jarduera bati dirulaguntza ukatu bazaio, ukatze aren arrazoia zein den adieraziko da.

Deialdiaren ebazpena eman ondoren ez da aldaketarik onartuko bertan onartutako proiektuen zerrendan. Dagokion ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik hasita. Epe hori amaitu ondoren, ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertuko dute

Posteriormente, el órgano competente dictará la resolución que ponga fin al procedimiento, de conformidad con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y con la normativa que resulte de aplicación.

9ª Resolución de concesión de subvenciones.

La resolución de concesión o denegación, en su caso, se dictará por el órgano competente, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

De conformidad con el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de concesión de subvenciones será publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Esta publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada a todos los efectos legales desde el día siguiente al de su publicación.

La resolución identifica las entidades solicitantes y los proyectos y actividades presentados. La resolución de concesión establecerá el gasto considerado subvencionable, el porcentaje subvencionado, el importe de la ayuda concedida, así como la partida y anualidad destinada a su financiación. En el caso de que una actividad haya sido denegada, se indicará el motivo de la denegación.

Tras la resolución de la convocatoria no se admitirán modificaciones en la relación de proyectos aprobados. El plazo máximo para dictar y notificar la resolución correspondiente será de dos meses a contar desde la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, los interesados podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

10. Dirulaguntzak ordaintzea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Dirulaguntzen zenbatekoa behin ordainduko da eta eskatzaileak izendaturiko kontu korrontean ingresatuko da.

Laguntzaren %100a aurrerakin bezala eman ahalko da.

Deialdiak ezarritako epe-mugan dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko da ondoko edukiarekin:

- *.- Jarduera memoria bat, egindako ekintzak biltzen dituen
- *.- Egindako inbertsioei dagozkien fakturak/ziurtagiriak eta, kasua bada, ordainagiriak
- .- Entitate onuradunak lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru-sarrera edo laguntzaren bat jasotzen badu, horren zenbatekoa eta jatorriari buruzko informazioa.
- *.- Kasua bada, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, gastua egindakotzat eta lagungarritzat jo ahal izango da, nahiz eta ordainduta ez egon, baina kasu horretan entitateak ordainketa hori egin duela egiaztatu beharko du laguntza kobratu ondorengo 30 egunetan.

11. Onuradunen betebeharrak.

Oinarri arautzaile hauetan ezarritako dirulaguntzen onuradunek, oinarrietan beren-beregi adierazitako betebeharrak gain, honako hauek ere bete beharko dituzte: azaroaren 17ko 38/2003 Legean (Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra)

10ª Pago de las subvenciones y documentación a presentar.

El importe de las subvenciones se abonará una vez y se ingresará en la cuenta corriente designada por el solicitante.

El 100% de la ayuda podrá concederse como anticipo.

En el plazo máximo establecido por la convocatoria deberá presentarse la justificación de la subvención con el siguiente contenido:

- * .- Memoria de actividad con las acciones realizadas
- * .- Facturas/justificantes de las inversiones realizadas y, en su caso, justificantes de pago
- .- En el caso de que la entidad beneficiaria perciba otros ingresos o ayudas para la financiación de la actividad subvencionada, información sobre su importe y procedencia.
- * .- En su caso, los tres presupuestos que haya tenido que solicitar el beneficiario.

A efectos de lo dispuesto en el artículo 30.2 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se admitirá como realizado y subvencionable el gasto aun cuando no hubiera sido efectivamente pagado, si bien en este caso la entidad habrá de acreditar la realización de dicho pago en un plazo máximo de 30 días desde la fecha de cobro de la subvención.

11ª Obligaciones de los beneficiarios.

Los beneficiarios de las subvenciones establecidas en estas bases reguladoras, además de las obligaciones expresamente contempladas en las mismas, deberán cumplir las demás obligaciones establecidas en la Ley

adierazitakoak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (Dirulaguntzen Araudi Orokorra) ezarritakoak, eta Oñatiko Udalaren Dirulaguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorrekoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2009ko otsailaren 10ean argitaratua).

12. Baliabide ekonomikoak.

Eman daitezkeen dirulaguntzak Oñatiko Udalaren deialdiaren urteko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdian ezarriko da zer aurrekontu-kredituren kontura finantzatu diren dirulaguntzak.

13. Ebazpenaren aldaketa.

Dirulaguntza ematen duen ebazpena aldatu egin daiteke, baldin eta ematerakoan eta ordaintzerakoan kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira eta, nolahi ere, diruz lagun daitezkeen zenbatekoaren muga maximoa gainditzen bada, beste dirulaguntza batzuk ere lortu izanaren ondorioz.

Horrenbestez, eskumeneko organoak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokituz.

14. Arau-haustek, zigor administratiboak eta itzulketak.

Zigor araubidearen gaitan, diruz lagundutako jardueragatik, Oñatiko Udalak dirulaguntzak emateko duen ordenantza arautzailea (2009ko martxoaren 23ko GAO, 54. zk.) eta dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren IV. Tituluan eta 887/2006 Erret Dekretuaren IV. Tituluan xedatutakoari lotuko zaio.

38/2003 de 17 de noviembre (Ley General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006 de 21 de julio (Reglamento General de Subvenciones) y Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Oñati publicada en Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 10 de febrero de 2009)

12ª Recursos económicos.

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Oñati del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

13ª Modificación de la resolución.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión y pago de la ayuda, siempre que se entienda cumplida el objeto de ésta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía subvencionable por obtención concurrente de otras subvenciones, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones.

En consecuencia, el órgano competente dictará la oportuna resolución de modificación en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

14ª Infracciones, sanciones administrativas y reintegros.

En materia de régimen sancionador por razón de la actividad subvencional se estará a lo dispuesto en la Ordenanza general para la gestión de las subvenciones concedidas por el ayuntamiento de Oñati (BOG del 23 de marzo de 2009) y el Título IV de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Título IV del RD 887/2006.

Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan eta 887/2006 Erret Dekretuaren 91., 92. eta 93. artikuluetan aurreikusitakoez gain, dirulaguntza emateko erabakia deuseztasunagatik edo deuseztagarritasunagatik, bidezkoa izango da jaso diren kopuruak itzultzea eta berandutza interesa eskatzea, dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa, hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Ez betetzea jasotzen diren fondoak zertan erabiltzen diren xedaturiko moduan eta epean egiaztatzeko beharra.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako xedaturiko baldintzak faltsutuz edo ez ematea ekarriko luketen haiek ezkutatuz.

c) Ez betetzea dirulaguntza ematerakoan onuradunari izendatzen zaizkion baldintzak.

d) Ez betetzea, oso-osoan edo zati batean, laguntza edo dirulaguntza ematerako oinarri den xedea.

e) Uko edo oztopo egitea organo eskudunen kontrol jarduerari.

f) Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren arau bereziek xedaturiko gainerako baldintzak.

Además de las previstas en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y los art.91, 92 y 93 del RD 887/2006, por razón de la nulidad o anulabilidad de la resolución de concesión, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la ayuda o subvención, cuando concorra alguna de las circunstancias siguientes:

a) Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente del destino de los fondos percibidos, en la forma y plazos establecidos.

b) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

c) Incumplimiento de las condiciones impuestas a las personas beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.

d) Incumplimiento, total o parcial, de la finalidad para la que fue concedida la subvención.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control por los órganos competentes.

f) En los demás supuestos previstos en las bases específicas de cada ayuda o subvención.

II ERANSKINA

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanetarako dirulaguntzak (2026ko deialdia)

1. Oinarri arautzaileak

Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak 2026ko martxoaren 26an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran onartu ziren, deialdi honekin batera Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnak.

2. Baldintzak eta onuradunak

1. atalean aipatutako erabakian onartutako oinarrien arautzaileetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten entitateek lortu ahal izango dituzte deialdi honetan jasotako laguntzak.

3. Dirulaguntzen xedea

Diruz lagundu daitezkeen gastuak 4. oinarri arautzailean aurreikusitakoak dira.

4. Aurrekontu kredituak

Deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura da 1 1106.481.172.00.01 2026 (5702) "HOM txabolen dirulaguntza" kontu sailaren eta bere lotespen-mailaren kargura.

5. Eskerak aurkezteko modua, epea eta dokumentazioa

Dirulaguntza eskaera 20 egun balioduneko epean aurkeztu ahal izango dira, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN deialdia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

Eskaera-orria Zerbitzuak eta Landa Garapen departamentura zuzendu beharko da. Eskaera orriarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- proiektuaren komenigarritasuna eta beharra justifikatzen duten memoria.

ANEXO II

Ayudas para los trabajos realizados en las chabolas de pastores de los Montes de Utilidad Pública de Oñati (convocatoria 2026)

1. Bases reguladoras

Las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para los trabajos realizados en las chabolas de pastores de los Montes de Utilidad Pública de Oñati se aprobaron en el Pleno Municipal del 26 de marzo de 2026, publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa junto con la presente convocatoria.

2.- Requisitos y personas beneficiarias

Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente convocatoria las entidades que cumplan los requisitos establecidos en las bases reguladoras aprobadas por el acuerdo mencionado en el apartado 1.

3.- Objeto de las ayudas

Los gastos subvencionables son los previstos en la base reguladora 4.

4.- Créditos presupuestarios

La dotación presupuestaria para esta convocatoria es contra la partida 1 1106.481.172.00.01 2026 (5702) "HOM txabolen dirulaguntza" y su nivel de vinculación.

5.- Forma, plazo y documentación para la presentación de solicitudes

La solicitud de subvención podrá presentarse en el plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La solicitud deberá dirigirse al departamento de Servicios y Desarrollo Rural. La solicitud deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Memoria justificativa de la conveniencia y necesidad del proyecto.
- certificado del registro de explotaciones

- nekazaritzako ustiategien errolda-agiria.
- inbertsioaren edo gastuaren fakturak eta ordainagiriak (soilik diruz lagunduko dira bankuko ordainagiri bidez justifikatzen diren gastuak).
- dirulaguntzaren ordainketa egiteko kontu korrante zenbakia.

Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.).

Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren. Horiez gain, dirulaguntzak emateko beharrezko deritzon datu osagarriak eska ditzake Udalak.

agrarias.

- facturas y recibos de la inversión o gasto (sólo se subvencionarán los gastos justificados mediante recibos bancarios)
- nº de cuenta para el pago de la subvención.

En el caso de que la solicitud o documentación que acompañe a la solicitud sea defectuosa o incompleta, se requerirá a los interesados para que en el plazo de diez días subsanen los defectos observados (art. 68.1 de la Ley 39/2015).

Transcurrido dicho plazo sin que se haya realizado, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015. Además, el Ayuntamiento podrá solicitar los datos complementarios que considere necesarios para la concesión de las subvenciones.

ESKATZAILEA/SOLICITANTE

1. Abizena / 1.º Apellido		2. Abizena / 2.º Apellido		Izena / Nombre		NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte	
Interesduna naiz / Soy la persona interesada							
Honako hau ordezkatzzen dut: / Represento a: Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ: / DNI-NIE-Pasaporte-NIF de la persona representada:							
JAKINARAZI HEMEN / NOTIFICAR EN		Kalea / Calle		Zk. / N.º		Solairua / Piso	
						Aldea / Mano	
Posta kodea / Código postal		Herria / Municipio				Lurralde / Provincia	
Telefonoa / Teléfono		E-posta / E-mail				Mugikorra / Móvil	

DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO KONTU KORRONTE ZENBAKIA / CUENTA BANCARIA PARA EL ABONO DE LA AYUDA
Kontu korrontea / Cuenta corriente
Titularra

Titular

IBAN kodea (24 digitu) / Código IBAN (24 dígitos)

E	S																					
---	---	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Informatzen dizugu Oñatiko Udalak zuzenean egiaztatuko dituela oinarrietan ezarritako baldintzak, datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetan eta beste administrazio batzuetan. Egiaztapen horren aurka egiteko aukera duzu, eta, kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu.

Se informa a la persona solicitante, que el ayuntamiento de Oñati va a verificar los requisitos establecidos desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. La persona solicitante tendrá opción a oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberá presentar la documentación pertinente.

Aurka nago, eta, beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut / No estoy de acuerdo, y en consecuencia, apporto la documentación requerida

Zein zerbitzuren aurka zauden eta aurka egiteko arrazoiak / Servicios a los que se opone y motivos de la oposición

DATU BITARTEKARITZAKO PLATAFORMAREN BIDEZ ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK.	SERVICIOS QUE SE SOLICITARÁN MEDIANTE LA PLATAFORMA DE INTERMEDIACIÓN DE DATOS
Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharretan egunean egotearen kontsulta.	Diputación Foral de Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias
Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDNrekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta	Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	DOCUMENTACIÓN A APORTAR
Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta eman izanaren egiaztatzea.	Certificado de alta en el correspondiente régimen de Seguridad Social
Dirulaguntza ingresatu beharko litzatekeen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria	Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente en la que debería ingresarse la subvención

Data (uuuu/hh/ee) / Fecha (yyyy/mm/dd)

Sinadura / Firma

Eskabide honetan jasotako datu pertsonalak interesdunaren baimenarekin jasotzen dira, eta Oñatiko Udalak tratamendu automatizatua emango die, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Interesdunek datuetan sartzeko, datuak ezeztatze, datuak zuzentzeko eta datuen aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Oñatiko Udalaren aurrean.

Los datos personales contenidos en esta solicitud se recogen con el consentimiento de la persona interesada, y serán objeto de tratamiento automatizado por el Ayuntamiento de Oñati, quien actuará con arreglo a lo establecido en la L.O. 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Oñati.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA AURKEZTEN DUEN PERTSONA
PERSONA QUE PRESENTA LA DECLARACIÓN RESPONSABLE

1.Abizena / 1^{er} apellido	2.Abizena / 2^o apellido	Izena / Nombre	NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte
Interesduna naiz / Soy la persona interesada			
Honako hau ordezkatzan dut: / Represento a:			
Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ:/DNI-NIE-Pasaporte-NIF de la persona representada:			

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN HAUXE ADIERAZTEN DUT:

☒ *Markatu x batekin dagokiona.*

1 Dirulaguntza publikoak eskuratzeko baldintzei dagokionez,

EZ dudala zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarkion zehapenik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatuak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera.

EZ nagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeren eraginpean.

1 Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat etortzeari buruz,

EZ dudala jaso enpresa berrien sustapenerako beste diru-laguntzarik.

BAI, eskatu/jaso dudala beste diru laguntza bat/batzuk enpresa berrien sustapenerako:

- Eskatutako/jasotako laguntza:.....
- Laguntza ematen duen erakundea.....
- Beste laguntza(r)en egoera:

Eskaera eginda.

Tramitazioan.

Onartuta (diru kopurua zehaztu).....

BAJO MI RESPONSABILIDAD DECLARO LO SIGUIENTE:

☒ *Marcar con una x lo que proceda.*

1 En cuanto a los requisitos para la obtención de ayudas públicas,

NO estar sancionada ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

NO estar incurso en ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 13. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2 En cuanto a la concurrencia con otras ayudas y subvenciones,

NO he recibido otras ayudas para la promoción de nuevas empresas.

SI, he solicitado/ recibido otras ayudas para la promoción de nuevas empresas:

- Ayuda solicitada/recibida.....
- Entidad que otorga la ayuda.....
- Situación de otra/s ayuda/s:

Solicitud realizada.

En trámite.

Aceptada (concretar cantidad).....

3. Enpresaren tamaina, langile kopuruari dagokionez,

1 eta 9 langile bitartekoa dela.

10 langile edo gehiagokoa dela.

4. Dirulaguntza honen xede den merkataritza sektoreko jarduerak garatzeko negozio-lokala,

☒ Markatu x batekin dagokion kasuan bakarrik.

EZ dela sustatzailean familia-etxebizitzaren zati; ez dagoela 2. mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik lokalaren errentatzailearekin; eta ez dela errentatzaile diharduen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide partaide.

Eta horrela jaso dadin jasota gera dadin, honako hau sinatzen dut.

3. Que el tamaño de la empresa, en cuanto al número de personas trabajadoras, es de

Entre 1 y 9 personas.

10 personas o superior.

4 En cuanto al local de negocio, para desarrollar actividades del sector comercio, que es objeto de esta subvención,

☒ Marcar con una x solo en el caso que corresponda.

NO es parte de una vivienda familiar o espacio compartido de la persona promotora; no existe relación de parentesco hasta 2º grado de consanguinidad afinidad con la persona arrendadora del local; ni se es socio/a o partícipe de la persona física o jurídica que actúe como arrendador/a.

Y para que así conste firmo la siguiente.

Data (uuuu/hh/ee) / Fecha (yyyy/mm/dd)

Sinadura / Firma

Eskabide honetan jasotako datu pertsonalak interesdunaren baimenarekin jasotzen dira, eta Oñatiko Udalak tratamendu automatizatua emango die, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Interesdunek datuetan sartzeko, datuak ezeztatzeko, datuak zuzentzeko eta datuen aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Oñatiko Udalaren aurrean.

Los datos personales contenidos en esta solicitud se recogen con el consentimiento de la persona interesada, y serán objeto de tratamiento automatizado por el Ayuntamiento de Oñati, quien actuará con arreglo a lo establecido en la L.O. 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Las personas interesadas podrán ejercer los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición ante el Ayuntamiento de Oñati.